

PLaza

44 ■ 'Erretratuak' Photomuseumen

Teknika ugariarekin egindako askotariko erretratu zahar aitzindariak ikusteko aukera dago Zarautzen.



Azika txontxongilo taldea, Koldo Ameztoti kontalaria, Lucien Etxezaharreta, Claude Labandes eta Itziar Madina idazleak, topaketen aurkezpenean. GAZTAKI.ROZ

Itzaleko literaturaren printzak

Gaur hasiko dira Lihuriko Egunak, Frantziaren menpe diren hizkuntza gutxituetako idazleen arteko topaketak

XAN AIRE
Baiona

«Etxean dagoenak ez du haizea maite», idatzi zuen Anjela Duvallek, Britainiako olerkariak. Ez haizea, ez argia. Bardozen (Lapurdi) asteburu honetan elkartuko diren idazleek itzaletik atera nahi lukete, haizearen menpe izan, haien oihartzuna xoko guzietara hel dadin, mendi erraldoiak ere urratuz. Edo itsasoak gaindituz. Baina Alasziaren, Britainiaren, Kortsikaren, Kataluniaren, Okzitaniaren eta Euskal Herriaren artean, itsaso guti dago. Mendi erraldoia bai, ordea: Frantzia.

Frantzia, eta «bere» hizkuntzak. Bere menpe dituenak. Frantzia, eta bere legeak. Aste honetan berean, herri hizkuntzen Europako ituna izenpetzea ez du onartu Frantziako Gobernuak. 53. aldia, 1958. urtetik. Herri eta hizkuntza gutxituetako bozeramaile gisa bilduko dira, beraz, 25 idazle, Bardozeiko Lihuriko Egunetan. Itzaleko lite-

raturren protagonista nagusiak: Joan-Daniel Bezonoff Montalat, Yann Ber Quirion, Mari Elen Maze, Morgan Ar Menn, Pierrette Kermaol, Joan-Lluis Lluís, Sergi Javaloyes, Ronald Euler, Itxaro Borda... Besteak beste. Horiek dira ezagunenak. Elkar ezagutzea da, orain, helburua. Bai eta elkarrekin argitaratzen hasia ere bai.

«Herri horiek, kantuen bidez, dantzari bidez eta ondarea babestuz bizi izan dira», dio Lucien Etxezaharretak, idazleak. «Literatura luzaz itzalean egon da, autore askok obra nagusiak egin arren. Belaunaldi berri batek, maiz herrikoia eta hizkuntzetarik etorriak, mintzaira horien historian lehen-dabiziko aldiz unibertsitateko formakuntza ireki eta beste kulturei zabaldia ardietsi duen belaunaldi batek, literatura eskutan hartu du». Belaunaldi horrek jorratuko ditu Lihuriko Egunak.

Eta izanen du zer egin, hiru egunez, behar den egitaraua pentsatu baitute Euskal Idazleen Elkarteko kideek. Hainbat arazo aipatzea

Elkar ezagutzea da jardunaldietako helburua, bai eta elkarrekin argitaratzen hasia ere

izanen da jardunaldietako xedea: itzulpenak eta harremanak sendotzea. Baina literaturak postura garrantzitsua dauka hizkuntza bat aitzinarazteko, eta biziartzeko. Itxaro Bordaren hitzaldiak, *Euskararen eta euskal literaturaren borroka, dinamika, egoera, gaur egun*, literatura horiei bultzada bat emateko helburua izanen du. Helburua proiektua ere bada: *Herri mintzairaren idazleak* deitu diote. «Herri bakoitzeko literatura ekoizpenak sendotu nahi ditu proiektuak, eta bakoitzak bere herriaren hizkuntzan idaztea posible dela frogatu», jakinarazi du Etxezaharretak.

«**LITERATURA NOBLEAGOA**». Hizkuntza horien indarra eta modernotasuna azpimarratzea. «Literatura nobleagoa» nahiko luke Itziar Madina Euskal Idazleen Elkarteko koordinatzaileak. Aurreiritziak, nazka, errespetu eskasa jasaten baitituzte, oraindik, herri gutxitu horiek. «Horregatik, elkarrekin hitz egin behar dugu, eta elkarre-

Lehen urratsa egin da: liburu bat laster plazaratuko dute, euskaraz eta okzitaniaraz idatzia

kin lan egin behar, beldur duten frantsesekin ere», azpimarratu du Claudia Labandesek, Okzitaniako Per Noste argitaletxeko arduradunak. Elkarlanaren lehen urratsa egin da: liburu bat laster plazaratuko dute, Maiatz argitaletxean, euskaraz eta okzitaniaraz idatzia. «Baina lekua denentzat badago. Aitzina joateko, elkartu behar dugu», ohartarazi du Labandesek.

Gaurko ongietorriaren ondotik, larunbatean izanen da Lihuriko Egunetako unerik garrantzitsuenak. Elkar ezagutzeko aukera eskainia izanen da goizean: bakoitzaren herria, bakoitzaren hizkuntza, bakoitzaren literatura aurkeztuak izanen dira. Gero, elkarren arteko sarea josten hasiko dira, herri bakoitzaren egoera eta ikusmoldeak aztertuz. Arratsaldean, euskal eta okzitandar literaturaren adibideak entzunik, Lihuriko Egunetako adierazpena sortu beharko lukete, bakoitzak bere hizkuntzan idatzia.

Arratsean, berriz, Azika txontxongilo taldearen eta Koldo Ameztoti ipuin kontalariaren inguruan ikusgarria antolatu dute: bakoitzak bere literaturaren idatziak irakurtzen ahalko dituen, inprobisazioaren lege eroak eramanik. Igande, berriz, Lihuri erretratu baz-

■ EGITARAUA

Gaur

■ **19:00:** Parte-hartzaileen ongietorria. Pierre Laborde Bardozeiko auzapezaren ongietorria. Euskal Idazleen Elkartearen aurkezpen orokorra eta aurreksua. Bertsolariak. Aperitifa. Afaria (20:30ean).

Bihar

■ **09:00:** Aurkezpen eta tailer goiza. Elkarretartzearen hastapena. Aurkezlea: Lucien Etxezaharreta.

■ **09:30-11:30:** Aurkezpen-eztabaida: 'Nor gira? Nondik heldu? Batzuen eta beste kulturen eta literaturaren aurkezpena' (herrialde bakoitzak 15 minutu). Aurkezlea: Ixabel Etxeberria.

■ **11:30-12:30:** Bi lan talde itzulpengintza, Pierrette Kermaolekin. Elkarren berri izateko sarearen osaketa, Per Noste elkartearekin. Eramailak: Marikita Tambourin eta Itziar Madina.

■ **13:00:** Bazkaria.

■ **15:00:** Hitzaldiak: 'Euskararen eta euskal literaturaren borroka, dinamika, egoera, gaur egun' (Itxaro Borda) eta 'Okzitania ahozko tradizioetik idatzira' (Claude Alranque).

■ **16:00-18:00:** Bilana, eztabaida formak. Moderatzailea: Emilio Lopez Adan.

■ **19:00:** Ikusgarria Bardozeiko zinema gelan. Bertsolariak. Pantxix Bidart, Claude Alranque, Azika txontxongilo taldea, Koldo Ameztoti Euskal Herriko ipuin kontalaria, Patricia Gattacceca kortsikar ipuin kontalaria... Testu eta olerkiak irakurri nahi dituztenei tarte irekia.

■ **20:30:** Afaria.

Etzi

■ **09:00:** Orreagara abiatzea, autobusez.

■ **10:30:** Oroitzapen argazkia, Ixabeltako lepoan.

■ **11:00:** Orreagako oroitarriaren aitzinean ongietorria, aurreksua, bertsoak eta jardunaldietako adierazpenaren irakurketak. Gero, ikusgarria Orreagako kaperan: Amaren Alabak taldeak Bernard Macieten *Gernikako errana* emango du kantuz.

■ **12:00:** Auritzen ibilaldia, Jose Angel Iri-garaiarekin.

■ **13:30:** Bazkaria.

■ **16:30:** Bardozeira itzulera.

terrak utziko dituzte idazleek, Orreagara joateko. «kulturen arteko topaketen lekua baita» Nafarroako herria, Etxezaharretak adierazi duenez. Bertan, Bernard Manciet okzitandarraren *Gernikako errana* obran oinarriturik, Amaren Alabak taldeak ikusgarri bat eskainiko du. Ondotik, Auritzera segituko dute, Ernest Hemingwayren aztarnak segituz. Horrela bukatuko dira itzaleko idazleen arteko lehen topaketa horiek.

Lihuriko Egunetako paradoxa: frantsesez iraganen direla, orokorki, jardunaldiak. Herri gutxitu direlakoan hizkuntza batua gertatzen baita Molierena. Menpekotasunaren aztarna, itzala.